

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Irabazi-asmorik gabeko elkarteek gizarte-zerbitzuen arloan ekintzak bideratzeko eta gizarteratzea sustatzeko diru-laguntzen oinarriak

Laudio Udaleko Gobernu Batzordeak, 2016ko abuztuaren 19a egin zuen bileran hartu zuen erabakian onartu egin ziren 2016 urterako irabazi-asmorik gabeko elkarteek gizarte-zerbitzuen arloan ekintzak bideratzeko eta gizarteratzea sustatzeko diru-laguntzen oinarriak.

Oinarri hauek jendaurrean erakutsiko dira zortzi (8) eguneko epean, Gizarte Ongizate, Lankidetzeta eta Osasun Arloko bulegoetan, hau da, Herriko plazako 5. interesatuek aztertu ahal izan ditzaten eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko. Aurkeztutako erreklamazioei buruz Korporazioak hartuko du bere erabakia eta oinarri hauek behin betiko onartuta geratuko dira epe horretan ez bada erreklamaziorik aurkezten

Erakunde laguntza emailea

a) Erakundea: Laudio Udala.

b) Bulegoa: Gizarte Ongizate, Lankidetzeta eta Osasun Arloa.

Helburua

Deialdi honen xedea da, Gizarte Ongizate, Lankidetzeta eta Osasun Arloaren bitartez, Laudio Udalak 2016 urtean eman ditzakeen dirulaguntzak arautzea, herrian bertan garatuko diren edo udalerrirako interesgarriak iritzi daitezkeen irabazi-asmorik gabeko elkarteek sustatutako gizarte izaerako jarduerak finantzatzen parte hartzeko

Diru laguntzak emateko aurrekontua

Guztirako zenbatekoa: 47.970,00 euro.

Oinarriak aztertu, informazioa eta dokumentazioa eskuratzea

Laudio Udaleko Gizarte Ongizate, Lankidetzeta eta Osasun Arloko bulegoan, Herriko plazako 5, 944034840 telefonoan, 9:00-14:00 ordutegian astelehenetik ostiralera, ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik hasita programak aurkezteko epea amaitu arte

Programak aurkezteko lekua eta epea:

a) Deialdi honen marko barruan laguntza jaso ahal duten elkarte egitasmoak kofinantziarako diru laguntza eskaerak Herriko plazako 5. zenbakian dauden Laudio Udaletxeko Idazkari-tzako bulegoetan aurkeztu beharko dira sarrera erregistroa emateko

b) Programak aurkezteko epea hogeitamar egunekoa izango da, ALHAOn Deialdi honen iragarkia argitaratuta agertu ondorengo egunetik hasita. Epearen azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, hurrengo lanegunera aldatuko da epea amaitzeko eguna. Posta bidalketaz aurkeztutako dokumentazioa Kontratzioko Araudi Orokorreko 100. artikuluan erabakitako baldintzen arabera arautuko da

c) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: oinarrietan azaldutakoa.

Izapidetzeko onartuko diren eskaerak denboraz eta formaz aurkeztutakoak bakarrik onartuko dira.

Eskaintza eredia

Deialdi honetan parte hartuko duten erakundeek, oinarrietan aurrikusitako eskaera-eredua hartuta, euren proiektuak eta oinarrietan seinalatutako dokumentuak aurkeztu behar izango dituzte.

Laudio, 2016ko abuztuaren 19a

Alkateak

JON IÑAKI URKIXO ORUETA